

Errukiaren Jubileu Urtea
– Garizuman –

Errukiak negar eginarazi digu

1. Hasiera (Poema)

Etixerako deia jaso nuen,
eta etxera etorri nintzen...
Bisita egin zidanak
maitasunaren su berotan gozatu ninduen...
Eta maitasunaren horman
–gurutzearen beso besarkatzaileetan–
maitasuna zer den, errukia zer den,
ikusi eta ikasi dut –nola gainera!–.

Baina... errukiak urduri utzi nau,
maitasunak nire barrua bistaratu dit:
eskuetatik erori zait maitasunaren koadroa
eta harekin, maitatu nauen maitasuna.

Eta hemen nago, Garizumako basamortuan,
maitasuna ulertu ezinik,
nire esker txarra onartu ezinik,
salatu nauen maitasunaren aurrean mutu.
Zer esan behar dut?

Barruak salatu egiten nau: Zer egin duzu?
Argiak min ematen dit begietan.
Hitzak harrikadak bezala ditut nire barruan.
Zer egin dut? Zer bizi dut?

Errukiak, baina, ez du hitzik esaten,
hor dago begira, hustuta, emana,
hitzik gabeko besarkada egina,
haragi-eteneraino beso-zabal.
Zergatik ez nau kondenatzen?
Zergatik ez nau baztertzen? Zergatik?

Eta negarrari eman diot gurutzearen aurrean:
halako maitasuna gogorregia da!
Isiltasun hori ozenegia da!
Besarkada hori estuegia da!
Eta negarrari eman diot!
Eta zer egin dezaket, negar ez bada?
Utziko diot Jaunari hitz egiten!
Nire begien malkoak eskuetan bilduko ditut,
eta Jaunari aurrean jarriko.
Hark badaki negarra jasotzen,
hark badaki malkoak xukatzen,
hark badaki nire bekatua ulertzen,
hark badaki negarraren malkoak
emoziozko malko bihurtzen.

Nire negarra errukitan gozatuko dut,
errukiaren Jauna horrelakoa baita!

(Isilunea utzi eta «Pazkora» abestia... kanta daiteke)

2. Kantua

Jauna, zure dei-hotsa heldu da herrira
ta zure fededunak martxan jarri dira
ilunpe gaiztotatik argira!

Penitentzi ta damuz Garizuman gora,
ibil-pauso apalez badakigu nora:
argiz pozten gaituen Pazkora!

Barauz arintzen zaigu aurrera-nahia,
indarren sendabide Hitzaren mahaia.
Latza den arren, martxa alaia!

Maite duzun eskaintza elkarren ardura,
gure maitasun-lanak zu zaitu helmuga:
zure onginahiaren kantu da!

Gure Jaun errukior ta bihotz handiko,
kantu bekatari hau hartzazu begiko:
gorespen, aintza zuri betiko!

(Isilunea...)

3. Jainkoaren Hitza

San Lukasen Ebanjeliotik (15, 11...).

Jesusek parabola hau esan zien:
Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari:
Aita, emadazu dagokidan senipartea.

Eta aitak ondasunak banatu zizkien.

Handik egun gutxira, seme gazteenak, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera alde egin zuen eta han, galdukerian biziz, ondasun guztiak jan. Dena xahutu zuenean, gosete ikaragarria gertatu zen inguru hartan eta estu aurkitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako gizon batengana joan zen morroi, eta hark bere sailalara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez asetzeko gogoia ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen.

Orduan, pentsatzen jarririk, bere baitan esan zuen:

Zenbat langile gure aitarenean nahi adina ogi eta gehiago dutela, eta ni hemen goseak hiltzen! Jaiki, aitarengana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago seme-izenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala.

Jaiki eta aitaren etxera abiatu zen. Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta errukitu egin zen; eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion:
Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme-izenik merezi... ”.

Aitak, ordea, esan zien morroiei:

Ekarri bizkor jantzirik onena eta jantziozue, ipiniozue eraztuna eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua; zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut.

Eta festa hasi zuten.

4. Kantua (*errepikatu bost-sei bat aldiz*)



Jaunaren errukia beti dut kantatuko.

5. Barne-lana galderaz edo aitortzaz

(*Isil-une luzeak eta musika suabea tartekatuz*)

- Une honetan nola sentitzen naiz neure barruan?
- Zer bizi dut, zer kalitatezkorik?
- Bizi dudana sentiduz bizi al dut?

- Sinesten al dut Jesusen Jainkoak maite nauela.
- Edo oinarriagoan, maitatua sentitzen al naiz?
- Jesusen gurutzea maitasunaren zeinu bezala ikusten al dut?
- Edo tortura hutsa iruditzen zait?

- Jainkoak maite nauela sinesten badut, nola erantzun diot maitasun horri?
- Nire bekatua ez ote da maitasunari egindako esker txarra?
- Maitasunak ez al nau barrutik biluzten?

- Gurutzerainoko maitasunak deseroso sentiarazten al nau?
- Zergatik? Gehiegizkoa delako? Salatu egiten nauelako?
- Jesusen Jainko honek zergatik maitatu ote nau ni?
- Ni justu zergatik?

- Aurrean daukadan maitasunezko gurutze honek:
 - Maitasunaren neurria ematen du, alde batetik;
 - Maitasunaren konpromisoa erakusten du, bestetik...

- Ez al dizu gurutzea besarkatzeko gogoia ematen?
- Duintasun-neurri berri baten aurrean gaude...
- Bai, bihotzez musukatuko dut Jesusen maitasun-gurutzea...

6. Sinbolo edo irudia

(*Pixkanaka gurutzerak hurbildu eta eskuarekin ukitu...*).

7. Betania. (*Egilea: Padre Germán Pravia*)

Bidea ilun, zerumuga itxita,
nondik joan ezin ikusi.
Uholde handia, ekaitza gainean,
nora joan bilatu behar.

Betania da gaua igarotzeko lekua,
babestuko gaituen maitasun isuria.
Zain itxaroteko sukalde da Betania,
ekaitza joan eta argitu arte.

**Goazen Betaniara bizia zaintzera,
Adiskidearen etxea bihotzarentzat.
Goazen Betaniara zauriak sendatu
eta Jainkoaren bihotzetik
bidea egiteko.**

Bizitzan eromes joatean,
ibiliaren eta maitatzearen zauriak.
Erruikiak esku ematen digu,
laguntzeko samariar on.

Betania da bizia berpiztu
eta birsortzeko etxea.
Kanpora dei egiten digun garrasi sakona,
askatu eta bizira deitzen gaituen maitasuna.

**Goazen Betaniara bizia zaintzera,
Adiskidearen etxea bihotzarentzat.
Goazen Betaniara zauriak sendatu
eta Jainkoaren bihotzetik
bidea egiteko.**

Betania, ostatu, topagune,
entzuteko prest daukagun bihotz irekia.
Besoak, maitasuna, atsedeen-altzoa
eskaintzen dizkiguten senide eta lagunak.

Arimaren festa, lasai egotea,
oinutsik, intimitatean sendo.
Ontzi bat hautsi da, dena usain gozo,
Erreinua iritsi den ziurtasun sakona.

**Goazen Betaniara bizia zaintzera,
Adiskidearen etxea bihotzarentzat.
Goazen Betaniara zauriak sendatu
eta Jainkoaren bihotzetik
bidea egiteko.**

Betania igarobidea da, ez da helmuga,
oinak libratzen zaizkigu aurrera egiteko.
Gorputza gantzutua eta arima indartua,
eguneroko borroketarako prest.

Betaniak begirada berria irekitzen digu,
uste onez egin gurutze-bidea.
Eta Jerusalem memoria sustatu,
historiaren Jauna Jesus zerbitzaria da.

**Goazen Betaniara bizia zaintzera,
Adiskidearen etxea bihotzarentzat.
Goazen Betaniara zauriak sendatu
eta Jainkoaren bihotzetik
bidea egiteko.**

8. Ez da gehiago negarrik izango...

Jauna, hau da hau!, bizitza osoa maitasun-bila
eta orain ezin sinetsi zure maitasuna...
Izan ere, gehiegizkoa izan da, neurriz kanpoko...
eta guk geure neurriko gauzak bakarrik ulertzen ditugu.

Zure maitasunak negar eginarazi dit, bai,
ez baitiot behar bezala erantzun...
Baina, zuk oraindik ere maite nauzu
eta doluzko negarra emoziozko negar bihurtu zait.

Jauna, ez dakit maitatzen, zalantzez nago,
baina uste dut maite zaitudala.
Nire maitasuna traketsa eta baldarra izango da, ziur,
baina nire ezintasunaren maitasun benetakoa da.

Eskerrik asko, Jauna, zure maitasunagatik.
Eta zuregandik ihes egiten badut ere,
nire autonomiaren ametsetan,
maita nazazu, besarka nazazu, bila nazazu.
Izan zaitetz nire Betania bakezkoa eta gozoa!

9. Berrito Betania kantua (denok kantatua)

Aurreko orrialdean

ETXEAN ESATEKO SALMO-OTOITZAK

Jauna, Zugana jasotzen dut gogoan;
ene Jainko, Zugan dut konfiantza,
ez nadila lotsagarri gerta.
Izan gogoan, Jauna, zeure gupida eta maitasuna,
betidanikoak baitira,
gogoratu nitaz zeure maitasunean.

25. [24] Salmoa

Zorionekoa hobena kendu
eta bekatua barkatu diotena.
Aitortu nizun neure bekatua,
neure errua ez nizun ezkutatu.
Esan nuen:
«Aitortuko diot Jaunari neure hobena»,
eta Zuk barkatu zenidan neure bekatuaren errua.

32. [31] Salmoa

Bihozbera eta errukiorra da Jauna,
haserregaitza eta onginahiz betea.
Nola aita semealabentzat errukior,
hala Jauna begirune diotenentzat gupidatsu.
Jaunaren maitasuna betidanik betidaino,
haren salbamenasmoak belaunez belaun dirau.
Bedeinka beza nire arimak Jauna!

103. [102] Salmoa

Bihotz-hautsiak Jaunak ditu sendatzen
eta haien zauriak lotzen.
Jaunak zutik eusten die umilei,
lurreraino eraisten ditu gaiztoak.
Begirune diotenak ditu gogoko Jaunak,
haren maitasunean itxaropen dutenak.

147. [146] Salmoa